

## BALIO PROPOSAMENA

Aurrerapen honek hainbat abantaila eskaintzen dizkigu. Hasteko, ilara arintzen du eta honela denbora aurrezten laguntzen dizu, hau da, zure txanda denean ohartarazi egiten dizu eta horrela ez duzu ilara guztia itxaron beharrik. Gure bezeroak (supermerkatuak) eskuragarritasuna eta erabilerraztasuna eskaintzea da gure helburuetako bat. Adibidez, pertsona batek presa duenean txanda hartzen du eta beste erosketak egitera lasai joaten da. Bere txanda denean mugikorrek abisatu egiten dio eta ez dio uzten denborarik galtzen ilaran. Aplikazio honek supermerkatuaren alde eragiten duen beste alde positibo bat beraren garapena eta kudeaketa hobe bat da. Gainera, supermerkatuak bezeroei eskaintzen dizkien zerbitzuekin erosoago sentiaraztea nahi dute, beraz guk eskaintzen dugun produktua primeran etortzen zaie.



Gure proposamenaren balorea **kualitatiboa** da. Bezeroak produktu edo zerbitzu jakin baten inguruan duen ikuspegia da guretzat garrantzitsuena. Gure enpresan, diseinua edota bezeroaren esperientzia bezalako faktoreak hartzen dira kontuan gure produktua erabiltzerako orduan. Laburbilduz, super merkatuak itxura

hobe, berritzaileago eta aldi berean erosoago bat edukitzea da gure helburu nagusia.